

## **MOZIO ARRUNTA**

### **TOPOAREN ALTZAKO GELTOKIKO OZTOPO ARKITEKTONIKOAK DIRELA ETA**

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Topoaren Altzako geltokiko oztipo arkitektonikoak direla eta.

#### **JUSTIFIKAZIOA**

2016ko irailean ireki zen Topoaren Altzako geltokia. Erabiltzen hasi bezain pronto, ordea, bizilagunak ohartu ziren oztipo arkitektonikoak zituela.

Batetik, Santa Barbarako eta Larratxo kaleko sarrera-irteerek eskailerak dituzte lehen (edo azken) zatian. Gainera, koska arriskutsu bat dute biek ala biek espaloien eta sarrera-irteeraren artean. Horiek erabat zailtzen diete geltokira jaistea edo geltokitik irtetzea pertsona ezinduei ez ezik, erostetako edo haurrentzako orgatxoekin, edota bizikletekin Topora iritsi nahi duten pertsoneri ere.

Eta bestetik, Larratxo kalearen eta Altza pasealekuaren arteko bidegurutzean dagoen igogailuak ez ditu osoki asetzen aipatu irisgarritasun arazoek beharko lituzketen irtenbideak. Hain zuzen ere, Altzako geltokitik irtetzeko aukera irisgarria ematen badu ere, ez da hala sarreraren ikuspegitik. Elizasu auzotik, osasun etxetik edota Harrobieta eremutik geltokira iristeko malda handiegia dago, eta adineko auzotarrek eta ezinduak lagundu behar dituzten pertsonen zailtasun handiak dituzte horraino iristeko. Bizilagun askok adierazi digutenez, hori ere bada Topoaren Altzako geltokia ez erabiltzeko arrazoietako bat.

EH Bilduren ustez, ez da onargarria, 2021ean, hain auzo jendetsuari mugikortasun zerbitzua eskaini nahi dion azpiegitura publiko batek horrelako oztipo arkitektonikoak izatea. Horregatik, uste dugu baliatu egin behar dugula Eusko Trenbide Sarea (ETS) Topoaren Altzako-Galtzaraborda zatia egiteko lanak hastear dituela, eskatzeko ETSri Topoaren Altzako geltokiko oztipo arkitektonikoak zuzentzeko. Garaiz gaude.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

#### **MOZIO ARRUNTA**

Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Eusko Trenbide Sarea erakundeari zuzentzeko Topoaren Altzako geltokiko oztipo arkitektonikoak, eta egin dezala Altzako-Galtzaraborda trenbide zatia egiteari ekin aurretik.

Donostian, 2021eko maiatzaren 4an

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldearen bozeramalea